

## Gero gerokoak, orain...

**B**artzelonatik bueltan zenbait gogoeta egin nahi nuke gure kultur sistemaren osasunaz. San Jordi eguna bizitzea tokatu zait bertan eta, jakina, ezin zitekeen egun hoberik –txarrogarik?– aurkitu, konparaketak egiten hasteko hemen dugun giroarekin. Rambletako liburu erakusketa erraldoia bada ikusgarria eta zer den irudikatzea kostatzen bazaizue has zaitezte bisualizatzen Herri Urrats bat, baina tabernen ordeztan –eta beraien inguruan pila-turiko jendetzaren ordeztan– liburu ez estalitako mahaiak eta irakurle armada bat.

Ez naiz bereziki agorafobia, baina jende oldeaz aspertzen hasia nintzen une batean bururatu zitzaidan liburuak lasaiago ikusi ahal izango nituela liburudenda batean, ustez eta jende guztia kalera irtenda zegoela. Intuzio okerra. Sartu naiz, bada, liburudenda handi batera, eta zer ikusten dut hango bazter batean? Ehun bat pertsona metaturik norbaiten inguruan. Oihuak: “No te vayas!” Hamar bat beso gutxienez altxaturik argazkiak hobeto ateratzearen, bultzada urduriak. Segituan pentsatu nuen musikari bat izango zela metaketaren zioa, ala aktore bat. Baina ez zen hala. Idazle bat zen istiluaren arrazoia. Eta guztiz ezezaguna literatur kontuetan informatuxea nabilen honentzat. Hogeigarren segundoko pasa nituen informazio *bruto* hura asimilatzeke. Obszonoak eta guzti iruditzen zitzaizkidan hasiera batean irakurle sutsu haien oihu emozioz kargatuak, onartu arte halako obszenitate apur baten behar beltza dugula hemen.

Argia itzali aurretik berriak ikusi nituen telebistan egun hartan. Cervantesen *Kixotea*-ren irakurketa jarraikia aipatu zuten, errelebo-ka egiten den hura. Biharamunean nire posta elektronikoa begiratu nuen, egunero lez. Sorpresatxo bat neukan zain: Euskal Idazleen Elkartearen email batek abisatzen



DANI BLANCO

Mr Apalategi

Basterretxea

Olasagerrre

ninduen hiru euskaltegik halako irakur-maratoi bat antolatu berri zutela zein obrarekin eta... Axullarren *Guero*(sic)-rekin.

Barkamena antolatzaileei baina ezin naiz isilik egon; arnasa moztu dit berriak. Bakar-bakarrik oroitarazi nahi dut gure *Gero* famatua Kontraerreforma katolikoak utzi digun euskarazko aztarna –edo zauri– biziena dela. Hots, lehenik bokazioz ez dela obra literario bat. Bigarrenik, gure herri historian gutxienez eztabaidagarria den papera jokatu zuen mugimendu ideologiko baten erakusgarria dela –Axullarrek paso egiten du ziurrenik bere begieztan ikusi zuen “sorginen” erreketeta masiboak eta ordena katoliko hertsienaren defendatzaile sutsu gisa ari da–. Hirugarrenik, gizakiaren ikuspegi desolagarria –dena da bekatu eta hobe duzu lehenbailehen bide zuzenean jar-tzea ez baduzu infernuaren sua dastatu nahi, laburbilduz– aurkezten digula doinu ezin moralizatzaileagoaz. Azkenik, liburuaren eduki horrengatik, euskara ezin politagoan idatzita egon arren pairaezina dela irakurketa, dosi homeopatikoa ez bada.

Gure literatura berriegia da, nonbait, *Kixotea*-ren baliokide zahar bat edukitzeko. Konforme. Juanjok aipatzen zuen *Hamaika pausoren* irakurtaldi jarraikia zoragarria litzateke niretzat, baina uler dezaket halako altxorak beste ehun bat urte beharko duela –eta ETArekin desagerpena?– behar bezala lixeritua izateko. Eta egia da, behar bada, deprimigarriegia litzatekeela Saizarbitoria-*ren opera magna* halako liburuaren festa batarako. Iradokizun bat beraz: zergatik ez dugu, adibidez, Joxan Sagastizabalen obra konpletoaren irakurketa jarraikia antolatzen?

Euskarak eskertuko digu, eta horrela Axullarrek ere agian bere hilobitik irri batzuk egingen ditu. *Post mortem* bada ere, badu beharra gizajoak. ■

Juanjok aipatzen zuen *Hamaika pausoren* irakurtaldi jarraikia zoragarria litzateke niretzat, baina uler dezaket halako altxorak beste ehun bat urte beharko duela –eta ETArekin desagerpena?– behar bezala lixeritua izateko